



FARMAZIA - ARABAKO ESI-A

Lehen Mailako Farmazia
farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

2022ko Iraila

TXIMINO-BAZTANGA (MONKEYPOX): EGUNERATZEA

Osasun Sailaren protokoloa eguneratzea

Osasun Publikoko Batzordearen txertaketa-gomendio berriak: larruazal barnetik erabiltzea

1

[Jarraitu irakurtzen](#)

NORADRENALINA DUTEN MEDIKAMENTUAK: IZENA ALDATZEA

AEMPSren informazio-oharra

2

[Jarraitu irakurtzen](#)

COVID-19AREN AURKAKO TXERTOAK: NOBEDADEAK

EMAK aldaera berrietara egokitutako txertoak baimentzea gomendatzen du

3

[Jarraitu irakurtzen](#)

COVID-19ARI AURRE EGITEKO ANTIBIRALAK JASOTZEKO IRIZPIDEAK ZABALDU DIRA

Biztanle mota gehiagora zabaldu da antibiralak jasotzeko hautagai izateko aukera (Paxlovid®, erremdesibir...)

4

[Jarraitu irakurtzen](#)

HILABETEKO NOBEDADEAK: ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN MEDIKAMENTUAK

2022ko abuztuko nobedadeak

5

[Jarraitu irakurtzen](#)

HORNIDURA-GABEZIAK ETA HORNIDURA-BERREZARTZEAK

2022ko abuztuko esanguratsuenak nabarmendu ditugu

6

[Jarraitu irakurtzen](#)

1

TXIMINO-BAZTANGA (MONKEYPOX): EGUNERATZEA

Osasun Sailaren protokoloa eguneratzea

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak [Monkeypox protokoloa](#) eguneratu du abuztuaren 8an. **Aldaketa nabarmenena da koadro kliniko larri bat agertzen denean komeni dela laginak bidaltzea Mikrobiologia Zentro Nazionalera (ISCIII) kasuaren azterketa mikrobiologiko osoa egiteko.**

Txertaketa-gomendio berriak - Osasun Publikoko Batzordea

Bestalde, Osasun Publikoko Batzordeak abuztuaren 22an eguneratu ditu [tximino-baztangaren egungo agerraldirako txertaketa-gomendioak](#).

Berrikuntza nagusietako bat da **18 urtetik gorako helduetan txertoa larruazal barneko bidetik ematea**, larruazalpeko bide estandarrean erabiltzen den dosia (0,5 ml) baino askoz ere txikiagoa (0,1 ml); horri esker, eskura dauden bialak optimizatu daitezke, gutxi daude eta.

Larruazalpeko bideak (0,5 ml) jarraituko du erabili beharrekoa izaten 18 urtetik beherakoei, haurdunei eta immunodepresioa duten pertsonen txertoa jartzeko.

Gomendio hori txertoak larruazal barneko bidetik duen eraginkortasunari eta segurtasunari buruz dagoen ebidentzia berrikusi ondoren egin da. Ebidentzia horren ondorioz, [AEMPSk informazio-ohar bat](#) argitaratu zuen, eta adierazi zuen

dosi txikiago batek antigorputzen erantzun bera ematen duela, segurtasun-arazorik eragin gabe, baina handitu egiten dela kontrako erreakzioak izateko arriskua (eritema, indurazioa, etab.).

Larruazal barneko bidea erabiltzeko, bolumen hil txikiko xiringak erabili behar dira, bial bakoitzetik ahalik eta dosi gehien lortzeko. Era berean, horrelako inekzioetan esperientzia duten profesional sanitarioek bakarrik ematea gomendatzen da.

Gainera, esposizio aurreko profilaxirako adin-mugak ezabatzen dira; hala, **txertaketarako lehenetsitako taldeak** honako hauek dira:

1. **Esposizio aurreko profilaxia: aurretik gaixotasuna igaro ez duten eta arrisku handiko sexu-praktikak dituzten pertsonak**, batez ere baina ez soilik GBHSH (Gayak, Bisexualak eta Gizonezkoekin sexua duten gizonezkoak), GIBarekiko esposizioaren aurreko profilaxiaren (PrEP) jarraibideen barruan daudenak, edo bestela, GIBak eragindako infekzioa badutenak eta ospitale-konsultetan jarraipena egiten ari zaienak.
2. **Baieztatutako kasuen kontaktu estuen esposizio osteko profilaxia, batez ere gaixotasun larria izateko arrisku handia dutenena** (haurrak, haurdunak eta immunodepresioa duten pertsonak), bai eta egiaztatutako kasuekin kontaktua duten eta NBEaren erabileran intzidentziaren bat izan duten osasun-arloko eta laborategiko langileena ere.

Txertaketa-pauta osoak bi dosi ditu, gutxienez 28 egunez bereizita, baina **une honetan lehenengo dosia baino ez da emango**. Txertaketa bigarren dosiarekin osatuko da txerto gehiago daudenean, **immunodepresioa duten pertsonen kasuan izan ezik, horiei pauta osoa emango baitzaie**. Baztangaren aurkako txertaketa-aurrekaria duten pertsonen kasuan, bigarren dosia ez ematea baloratu daiteke.

Osasun Publikoko Batzordearen dokumentuak, gainera, **txertoak maneiatzeko gomendioak** jasotzen ditu:

- Desizoztu ondoren, bialek 2 eta 8 °C artean 2 hilabetez iraun dezakete.
- 0,5 ml-ko bial bakoitzetik gehienez 0,1 ml-ko 5 dosi atera ahal izango dira, larruazal barnetik emateko. Ateratako azken dosia 0,1 ml-tik beherakoa bada, bota egin beharko da.
- Bialaren lehen ziztada egin ondoren, 2 eta 8 °C artean gehienez 8 orduz gorde ahal izango da.

[Itzuli HASIERAra](#)

2

NORADRENALINA DUTEN MEDIKAMENTUAK: IZENA ALDATZEA

Gaur egun, printzipio aktibo gisa noradrenalina duten hainbat medikamentu baimenduta daude. Denbora gehiago baimenduta daramatenek noradrenalina bitartrato gatz moduan adierazten zuten dosia; alderantziz, berriki baimendutako medikamentuek **base moduan adierazten dute dosia** (Europako egungo jarraibideetan gomendatzen den bezala). Horregatik, Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak (AEMPS) beharrezkotzat jo du **dosiaren adierazpena bateratzea, medikazio-akatsen arriskuak saihesteko**, eta [informazio-ohar](#) bat igorri du. Hona hemen oharra laburbilduta:

- B. Braun, Normon eta Norages **noradrenalinen izenak aldatu egin dira Europako araudira egokitzeko, eta gatz moduan adieraztetik noradrenalina base moduan adieraztera igaro dira**
- **Medikamentu horien osaera ez da aldatu**, eta bialeko edukia izena aldatu aurreko bera da.
- AEMPSk gomendatzen du hori kontuan hartzea, medikazio-akatsak saihesteko
- Stocka agortu arte, bialak izen zaharrarekin eta izen berriarekin egon daitezke.

[Itzuli HASIERAra](#)

Irailaren 1ean argitaratuko [AEMPSren informazio-oharraren](#) arabera, EMAk gomendatu du baimentzea omikron aldaerara egokitutako Pfizer/BioNTech-en zein Modernaren COVID-19aren aurkako txertoak. Duela hiru hilabete gutxienez COVID-19aren aurkako txertoa jaso duten 12 urteko edo gehiagoko pertsonentzat dira biak.

Txerto horiek erakutsi dute erantzun immune handiagoa sortzen dutela SARS-CoV-2 birusaren BA.1 omikron aldaeraren aurrean, eta, oroitzapen-dosi gisa erabilita, beste aldaera posible batzuen aurrean babes zabalagoa eskaini ahal izatea espero da. Egokitutako bi txerto horiek eman ondoren hautemandako kontrako erreakzioak jatorrizko txertoekin aurrez deskribatutakoen antzekoak dira, eta gehienak arinak eta iraupen txikikoak dira.

[Itzuli HASIERAra](#)

COVID-19ARI AURRE EGITEKO ANTIBIRALAK JASOTZEKO IRIZPIDEAK ZABALDU DIRA

Biztanle mota gehiagora zabaldu da antibiralak jasotzeko hautagai izateko aukera (**Paxlovid[®]**, **erremdesibir...**) SARS-COV-2k eragindako gaixotasun arin eta moderatuaren kasuan, eta orain honako hauek sartzen dira:

- >65 urte dituzten pertsonak (txertaketa-egoera edozein dela ere) eta gaixotasunak aurrera egiteko arrisku-faktore bat gutxienez dutenak.

Abuztuaren 2an eguneratutako AEMPSren irizpideak esteka honetan kontsulta daitezke:

<https://www.aemps.gob.es/medicamentos-de-uso-humano/acceso-a-medicamentos-en-situaciones-especiales/criterios-para-valorar-la-administracion-de-las-nuevas-alternativas-terapeuticas-antivirales-frente-a-la-infeccion-por-sars-cov-2/>

[Itzuli HASIERAra](#)

HILABETEKO NOBEDADEAK: ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN MEDIKAMENTUETAN

Hauek dira 2022ko abuztuko nobedadeak:

2022ko abuztua		
	Beklometasona / Formoterol fumaratoa/ Glikopirronioa	Trimbow[®] 88/5/9 mcg inhalagailu hautsa inhalatzeko: SNSren farmazia-prestazioan SARTU GABEA adierazpena zabaldu da: asma mantentzeko tratamendua behar bezala kontrolatuta ez dauden helduetan, hau da, eragin luzeko beta2 agonista baten mantentze-konbinazioarekin eta kortikoide inhalatuaren batez besteko dosi batekin daudenak eta aurreko urtean larriagotze asmatiko bat edo gehiago izan dutenekin. Fitxa teknikorako esteka. Orain arte, BGBK moderatuan edo larrian ematen zen baimena (Ikus 2021eko azaroko nobedadeak).

 Indikazioa zabaltzea, finantzatzea edo preskripzio- eta banaketa-baldintzak

2020ko urtariletik 2022ko abuztura arteko nobedadeak jasotzen dituen txostenera sartzeko, egin klik [hemen](#).

[Itzuli HASIERAra](#)


Hona hemen hilabete honetako HORNIDURA-GABEZIA esanguratsuenak:

- **Baqsimi**® 3 mg sudur-hautsa, dosi bakarreko ontzia (glukagoia). Alternatiba: baloratu glukagoi injektagarria edo beste tratamendu batzuk
- **Emerade**® 150 mcg aurrez kargatutako lumak (epinefrina). Alternatibak: Altellus® 150 mcg, Anapen® 150 mcg
- **Benoral**® suspentsioa 100 ml (fenoximetil penizilina). Alternatiba: fenoximetil penizilinaren beste formulazio edo dosifikazio batzuk
- **Estalis Sequidot**® txaplata transdermiko 50/250 mcg (estradiola/noretisterona). Alternatiba: konprimatueta erabilgarri dauden printzipio aktibo berak (Activelle, Duofemme, Eviana, Trisequens)
- **Lantanon**® 30 mg 30 konp. (mianserina). Biltegiren batean eskuragarri. Beste tratamendu batzuen erabilera baloratzea
- **Plurimen**® 5 mg 50 konp. (selegilina). Biltegiren batean eskuragarri. Beste tratamendu batzuen erabilera baloratzea
- **Rivotril**® 0,5 mg 60 konp. (klonazepam). Hornidura kontrolatua
- **Ropinirol, Requip**®, **Adartrel**® 0,25 mg konp., 1 mg konp. Biltegiren batean eskuragarri, 0,5 mg-ko aurkezpenen bat. 2 mg-ko aurkezpena eskuragarri
- **Rytmonorm**® 150 mg konp. eta **propafenona** 150 mg konp. Alternatiba: 300 mg-ko konprimatu erdia
- **Zebinix**® 50 mg/ml ahotiko suspentsioa (eslikarbamazepina). Banaketa kontrolatua. Alternatiba: beste forma farmazeutiko eta dosi batzuk eskuragarri

HORNIDURA-BERREZARTZEAK: ORNIDURA-BERREZARTZEAK:

- **Atrovent nasal**® 0,30 mg/ml sudurreko lainozt. (ipratropio bromuroa)
- **Benadon**® 300 mg 20 konp. estaliak (piridoxina)
- **Codeisan**® 28,7 mg 10 konp. eta 1,26 mg/ml jarabe (kodeina)
- **Levetiracetam**® 750 mg konp.
- **Plusvent**® 25 mcg/50 mcg/ inhalazioko, inhalaziorako susp., inh. 120 dosi (flutikasona+salmeterola)
- **Risperidona Flas**® EFG 2 mg 56 konp.
- **Trangorex**® 150 mg/30ml soluzio injektagarria (amiodarona)
- **Urbason**® 250 mg hauts + sol. disolbatzaile injektagarria (metilprednisolona)
- **Yurelax**® 10 mg kapsulak (ziklobenzaprina)
- **Zaditen**® 0,25 mg/ml kolirio dosibakarra (ketotifenoa)

ornidura-gabeziak esteka honetan kontsulta daitezke: [Hornidura-gabezien taula](#). Presbiden, zuzenean taula honetara daraman "Hornidura ezak" botoi berria txertatu da.



CIMA-AEMPSn: [AEMPSren medikamentuak hornitzeko arazoak](#)

[Itzuli HASIERA](#)

Argitalpen honen edukia Osakidetza Lehen mailako Arretako Farmazialariek egindako hileroko buletinetik egokitu da

Lehen Mailako Arretako Farmazia
 ARABAKO ESI-A: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus
 Farmazialariak: Javier Martínez, Inés San José
 945 006752/ 945 006631

